

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

2413

33/2011 FORU DEKRETUA, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena, abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuak eta abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuak onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia eta Sozietateen gaineko Zergaren Arautegiak aldatzen dituena.

Foru Dekretu honen xedea da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia eta Sozietateen gaineko Zergaren Arautegia aldatzea, abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuak eta abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuak hurrenez hurren onartu zituztenak.

Foru Dekretuak ondoko egitura dauka: artikulua bi, bat arautegi bakoitzeko, eta azken xedapen bi. Artikulu bietako lehenengoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa da eta bigarrena Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa.

Aldaketek arautegi biei eragiten die eta ondoko helburuak dituzte: arautegiak zerga bien aldatetara egokitzea, indizeen arabera kotizatutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateei dagokionean, bai inbertsio funts kotizatuek bai kapital aldakorreko inbertsio sozietateek konturako ordainketen arloan antzeko tratu fiskala izan dezaten; eta zerga bakoitzean araua gehitzea, Higiezinaren Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen araubide berezia aplikatzea erabaki duten sozietateek banatutako dibidenduen kasuetan atxikitzea edo konturako sartzea debekatuz.

Aurrekoaz gain, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari bakarrik dagokionean, lurraldeko administrazio publikoek emandako laguntza publikoen salbuespenak arautzen dituen arauko zerrenda eguneratu egiten da.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia aldatzea.

Hona hemen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuan egiten diren aldatetak:

Bat. Hona hemen 12.1.a) artikulua aurrerantzean izango duen edukia:

“a) Eusko Legebiltzarraren 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.”

Bi. Hona hemen 12.1.e) artikulua aurrerantzean izango duen edukia:

“e) Eusko Jaurlearitzaren 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (ondokoak ez dira sartzen: IV. kapituluaren ezarritako laguntzak, onuradunak bere jardura ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bitartez zehazten duenean).”

Hiru. 12.1. artikuluko f) eta h) letrak ezabatu egiten dira.

Lau. Hona hemen 12.1.i) artikulua aurrerantzean izango duen edukia:

“i) Agindua, 2010eko urriaren 6koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzak erosteko finantza-neurriei buruzkoa.”

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

2413

DECRETO FORAL 33/2011, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que modifica los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, aprobados por Decretos Forales 60/2002, de 10 de diciembre, y 76/2007, de 11 de diciembre.

El presente Decreto Foral tiene por objeto la modificación de los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, aprobados por Decretos Forales 76/2007, de 11 de diciembre y 60/2002, de 10 de diciembre, respectivamente.

El Decreto Foral se estructura en dos artículos, uno para cada Reglamento, y dos disposiciones finales. El primero de los dos artículos se ocupa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el segundo del Impuesto sobre Sociedades.

Las modificaciones, que afectan a los dos Reglamentos, tienen por objeto adaptar los mismos a las modificaciones de la normativa de ambos impuestos relativa a las sociedades de inversión de capital variable índice cotizadas, al objeto de dar un trato fiscal similar a los fondos de inversión cotizados y a las sociedades de inversión de capital en materia de pagos a cuenta, e incorporar a los respectivos impuestos el precepto en virtud del cual no procederá practicar retención o ingreso a cuenta en los supuestos de dividendos distribuidos por las sociedades que hayan optado por la aplicación del régimen especial de Sociedades Anónimas Cotizadas de Inversión en el Mercado Inmobiliario (SOCIMI).

Al margen de lo anterior, y en el ámbito exclusivo del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se actualiza el listado relacionado en el precepto regulador de la exención de ayudas públicas prestadas por las Administraciones públicas territoriales.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Artículo 1. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Uno. La letra a) del apartado 1 del artículo 12 queda redactada en los siguientes términos:

“a) Ley del Parlamento Vasco 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.”

Dos. La letra e) del apartado 1 del artículo 12 queda redactada en los siguientes términos:

“e) Decreto del Gobierno Vasco 177/2010, de 29 de junio, sobre ayudas para la conciliación de la vida familiar y laboral, salvo las ayudas previstas en el Capítulo IV cuando su beneficiario determine el rendimiento neto de su actividad económica por el método de estimación directa.”

Tres. Se suprimen las letras f) y h) del apartado 1 del artículo 12.

Cuatro. La letra i) del apartado 1 del artículo 12 queda redactada en los siguientes términos:

“i) Orden de 6 de octubre de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de medidas financieras para la compra de vivienda.”

Bost. Hona hemen 12.1.l) artikulua aurrerantzean izango duen edukia:

“l) 92/2008 Foru Dekretua, urriaren 28koa, Arabako Nekazaritza Sektorerako Laguntzen Plana onartzen duena: 15 - 28 artikulua.”

Sei. Hona hemen 12.1.n) artikulua aurrerantzean izango duen edukia:

“n) 193/2010 Foru Dekretua, ekainaren 16koa, 2009-2010 ikasurtean unibertsitate eta goi mailako ikasketen beste zentro batzuetara joateak arabar ikasleei eragiten dien garraio publikoaren kostua ordaintzeko dirulaguntzetarako deialdia onartzen duena.

Zazpi. Hona hemen 12.1.ñ) artikulua aurrerantzean izango duen edukia:

“ñ) Maiatzaren 19ko Diputatuen Kontseiluaren 292/2009 Erabakiaren bidez agindu bezala, AP-1 autobidearen Arabako zatia erabiltzeagatik Arabako lurralde historikoan bizi direnek ordaindutako bidesaria diruz laguntzeko programa garatzean Vías de Álava sozietate publikoak emandako laguntzak.”

Zortzi. Hona hemen 12.1.o) artikulua aurrerantzean izango duen edukia:

“o) 36/2010 Foru Dekretua, uztailaren 13koa, ikasliburuak erosteko laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onartzen dituen, 2010-2011 ikasurterako.”

Bederatzi. Hona hemen 12.1.p) artikulua aurrerantzean izango duen edukia:

“p) 30/2008 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, publikoak ez diren egoitza eta etxebizitza komunitarioetan mendekotasun egoeran dauden pertsonak aldi batean sartzeko dirulaguntzei buruzko araudia onartzen duena.”

Hamar. Hona hemen 12.1.q) artikulua aurrerantzean izango duen edukia:

“q) Ebazpena, 2009ko abenduaren 10ekoa, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuarena, gizarte termalismoaren programan parte hartu nahi duten pentsiodunentzako plazen deialdia egin duena.”

Hamaika. 12.1. artikuluan y), z) eta aa) letra berriak gehitzen dira, ondoko edukiarekin:

“y) Agindua, 2010eko azaroaren 3koa, Kulturako sailburuarena, “Kultura Bonoa” garatzeari eta sustatzeari buruzkoa.”

z) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako laguntzak, Arabako lurralde historikoan askatasunik gabeko pertsonentzako laguntza ekonomikoen programaren xedapen eta oinarri arautzaileez baliatuz.

“aa) 56/2009 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa, gizarteratze ibilbideetan parte hartzen duten pertsonentzako prestazio ekonomikoa arautzen duena.”

Hamabi. Hona hemen 101.k) artikulua aurrerantzean izango duen edukia:

k) Talde inbertsioko erakundeen partaidetzak edo akzioak itzuli edo eskualdatuta lortutako ondare irabaziak, baldin eta, Zergaren Araudiari buruzko Foru Arauko 50. artikuluan ezarritakoaren arabera, konputatu behar ez badira, eta Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 49. artikuluan araututako funtsen eta sozietateen partaidetzak itzulita edo eskualdatuta lortutakoak (araudi hori azaroaren 4ko 1.309/2005 Errege Dekretuak onartu zuen).

Hamahiru. 101 artikuluan l) letra berria gehitzen da, ondoko edukiarekin:

“l) Higiezinaren Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen araubide berezia aplikatzea erabaki duten sozietateek banatutako dibidenduak.”

Hamalau. Bigarren xedapen gehigarria honela geratu da:

“Bigarrena. Partaidetzak, inbertsio funts kotizatueta eta indizeen arabera kotizatutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateen akzioetan.

Cinco. La letra l) del apartado 1 del artículo 12 queda redactada en los siguientes términos:

“l) Artículos 15 a 28 del Decreto Foral 92/2008, de 28 de octubre, por el que se aprueba el Plan de Ayudas al Sector Agrario Alavés.”

Seis. La letra n) del apartado 1 del artículo 12 queda redactada en los siguientes términos:

“n) Decreto Foral 193/2010, de 16 de junio, que aprueba la convocatoria de subvenciones destinadas a los estudiantes alaveses para sufragar los gastos de transporte público a centros universitarios y otros centros de estudios superiores durante el curso académico 2009-2010.

Siete. La letra ñ) del apartado 1 del artículo 12 queda redactada en los siguientes términos:

“ñ) Las ayudas prestadas por la Sociedad Pública Vías de Álava en virtud del desarrollo del programa de subvención en el peaje satisfecho en el tramo alavés por los usuarios de la autopista AP-1 residentes en el Territorio Histórico de Álava, encomendado a ésta mediante Acuerdo 292/2009, del Consejo de Diputados de 19 de mayo.”

Ocho. La letra o) del apartado 1 del artículo 12 queda redactada en los siguientes términos:

“o) Decreto Foral 36/2010, de 13 de julio, que aprueba la convocatoria pública, y sus bases rectoras, de ayudas para la adquisición de libros de texto para el curso académico 2010-2011.”

Nueve. La letra p) del apartado 1 del artículo 12 queda redactada en los siguientes términos:

“p) Decreto Foral 30/2008, de 22 de abril, que aprueba la normativa reguladora de las Ayudas Económicas para el ingreso temporal de personas dependientes en Centros Residenciales y Viviendas Comunitarias Ajenas a la Red Pública.”

Diez. La letra q) del apartado 1 del artículo 12 queda redactada en los siguientes términos:

“q) Resolución de 10 de diciembre de 2009, del Instituto de Mayores y Servicios Sociales, por la que se convoca la concesión de plazas para pensionistas que deseen participar en el Programa de Termalismo Social.”

Once. Se añaden tres nuevas letras, y), z) y aa), al apartado 1 del artículo 12, con el siguiente contenido:

“y) Orden de 3 de noviembre de 2010, de la Consejera de Cultura, para el desarrollo y promoción del “Bono Cultura”.”

“z) Las ayudas prestadas por el Instituto Foral de Bienestar Social en virtud de las Disposiciones y Bases Reguladoras del Programa de Ayudas Económicas dirigidas a personas privadas de libertad en el ámbito del Territorio Histórico de Álava.”

“aa) Decreto Foral 56/2009, de 30 de junio, que regula la Prestación Económica para Personas que participen en Itinerarios de Inclusión.”

Doce. La letra k) del artículo 101 queda redactada en los siguientes términos:

“k) Las ganancias patrimoniales derivadas del reembolso o transmisión de participaciones o acciones en instituciones de inversión colectiva cuando de conformidad con lo establecido en el artículo 50 de la Norma Foral del Impuesto no proceda su cómputo, así como las derivadas del reembolso o transmisión de participaciones o acciones en los fondos y sociedades regulados por el artículo 49 del Reglamento de la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de Instituciones de Inversión Colectiva, aprobado por el Real Decreto 1309/2005, de 4 de noviembre.”

Trece. Se añade una letra l) al artículo 101, con la siguiente redacción:

“l) Los dividendos distribuidos por sociedades que hayan optado por la aplicación del régimen especial de sociedades anónimas cotizadas de inversión en el mercado inmobiliario.”

Catorce. La Disposición Adicional Segunda queda redactada en los siguientes términos:

“Segunda. Participaciones en fondos de inversión cotizados y acciones de acciones sociedades de inversión de capital variable índice cotizadas.

Zergari buruzko Foru Arauko 50.1.b) artikuluan ezarritako geroratzeko araubidea ezin aplikatu izango da baldin eta eskualdatu edo itzultzen diren partaidetzak, edo harpidetu edo eskuratzen direnak, Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 49. artikuluan aipatutako inbertsio funts kotizatuen edo mota bereko sozietateen akzioen ondarearen ordezkagarriak badira (araudi hori azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).”

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergaren Araudia aldatzea.

Hona hemen Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartzen duen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuan egiten diren aldaketak::

Bat. 50.y) artikulua aldatu egiten da. Hona hemen aurrerantzean izango duen edukia:

“y) Inbertsio Kolektiboko Erakundeen 35/2003 Legeak (azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartua) 49. artikuluan araututako funts eta sozietateetan partizipazio edo akzioen ordainketak edo eskualdaketak sortutako errentak.”

Bi. 50 artikuluan aa) letra berria gehitzen da, ondoko edukiarekin:

“aa) Higiezinaren Merkaturaren Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuen araubide berezia aplikatzea erabaki duten sozietateek banatutako dibidenduak.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean sartzea

Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak (salbuespena: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuko 12.1.y) artikulua, izan ere, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak).

Bigarrena. Gaitzea.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena eman zaio foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkotzat jotzen diren xedapen guztiak emateko.

Gasteiz, 2011ko apirilaren 12a.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

2536

Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinaren katastro balorazioa onartzen duen foru dekretu proiektua.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak Diputatuen Kontseiluari proposatuko dio ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinaren katastro balorazioa onartzen duen foru dekretu proiektua onartzea.

Martxoaren 9ko 14/2004 Foru Dekretuaren 4. artikuluan araututakoak betetzeko, nahi duenak arautegiaren testua eskuragarri izango du Zerga Araudiaren Zerbitzuaren bulegoetan (Samaniego kalea, 14-5. solairua) edo www.alava.net web orrian, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo zazpi egunetan, egokiak iruditzen zaizkion oharrak egin ditzan.

Gasteiz, 2011ko apirilaren 18a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.

El régimen de diferimiento previsto en el artículo 50.1.b) de la Norma Foral del Impuesto no resultará de aplicación cuando la transmisión o reembolso o, en su caso, la suscripción o adquisición tenga por objeto participaciones representativas del patrimonio de los fondos de inversión cotizados o acciones de las sociedades del mismo tipo a que se refiere el artículo 49 del Reglamento de la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de Instituciones de Inversión Colectiva, aprobado por el Real Decreto 1309/2005, de 4 de noviembre.”

Artículo 2. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 60/2002, de 10 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades:

Uno. Se modifica la letra y) del artículo 50, que queda redactada en los siguientes términos:

“y) Las rentas derivadas del reembolso o transmisión de participaciones o acciones en los fondos y sociedades regulados por el artículo 49 del Reglamento de la Ley 35/2003, de Instituciones de Inversión Colectiva, aprobado por el Real Decreto 1309/2005, de 4 de noviembre.”

Dos. Se añade una nueva letra aa) al artículo 50, con la siguiente redacción:

“aa) Los dividendos distribuidos por sociedades que hayan optado por la aplicación del régimen especial de sociedades anónimas cotizadas de inversión en el mercado inmobiliario.”

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA y tendrá efectos desde el 1 de enero de 2011, excepto la letra y) del apartado 1 del artículo 12 del Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que surtirá efectos desde el 1 de enero de 2010.

Segunda. Habilitación.

Se autoriza al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Vitoria-Gasteiz, 12 de abril de 2011.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

2536

Proyecto de Decreto Foral de aprobación de valoración catastral de los bienes inmuebles de características especiales.

El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos va a proponer al Consejo de Diputados la aprobación de un proyecto de Decreto Foral de valoración catastral de los bienes inmuebles de características especiales.

Con el fin de dar cumplimiento a lo previsto en el artículo 4º del Decreto Foral 14/2004, de 9 de marzo, durante los 7 días siguientes a la publicación en el BOTHA del presente anuncio, el texto de dicha normativa se encuentra a disposición de quien lo solicite, a fin de realizar las observaciones que estime oportunas, en las dependencias del Servicio de Normativa Tributaria en la calle Samaniego, 14-5ª planta o en la dirección electrónica www.alava.net.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de abril de 2011.– Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.